Hezkuntza emozionala/konpetentzia emozionalen inguruko ezagutzari dagokionez, parte hartu dutenek argi dute hezkuntza emozionalak gero eta garrantzi handiagoa duela hezkuntzaren eremuan, duela urte batzuk baino. *“Hasieran ez zen lanketarik egiten, gaur egun planteatzen da. Emozioak zentralizatzen hasi dira, garrantzia ematen hasi zaio.”* (Parte-hartzaile 2 FG). Hori ez ezik, azpimarratu egiten dute beharrezkoa dela emozioak ikasgelan lantzea eta emozio horiek hezkuntza-prozesuen ardatz bihurtzea. *“Da mundu bat, behar beharrezkoa eta orain hasi gara denok pixka begiratzen.”* (Parte-hartzaile 1 FG).

Gainera, islatzen da parte-hartzaile guztiek noizbait entzun eta landu dutela hezkuntza emozionalaren kontzeptua, hasierako momentutik emozioekin eta sentimenduekin lotuera sortuz. Hala ere, erantzunetan ongizate indibidualaren eta kolektiboaren garrantzia ikus daiteke, emozio propioak eta besteenak ezagutzearekin batera. *“Niri lehenengoko hitza sentitze izango litzateke, introspektzioa*

ere, norberaren burua ezagutzea. Beharrezkoa da hori. Eta kontziente izatea.” (Parte-hartzaile 1 FG).
“Nik hori entzutean ba pentsatzen du sentimentuetan, segurtasuna, babesa eman behar dela. Babesa ematea emozioei eta pertsona ere etortzen zait burura, ba pertsona izatea.” (Parte-hartzaile 3 FG).
“Nik esango nuke ongizatea (...) sentimenduak eta emozioak ere. Autoezagutza eta besteen ezagutza.”(Parte-hartzaile 4 FG)

Parte-hartzaileek argi esaten duten bezala, Hezkuntza Emozionala ez da ikasleak bakarrik landu behar duen zerbait, baizik eta irakasleei beraiei eskatzen zaie emozionalki gai izatea esparru profesionalean eta pertsonalean. Hori gertatzen da emozioak bizitzetan oinarri direlako. *“(…)Nire ustez emozioak hain oinarrizkoak dira eta garrantzitsuak, hor lan handia dago eta norberaren buruari begiratzea eta zentratzea da garrantzitsua.”* (Parte-hartzaile 1 FG).

Gaitasun emozionalei dagokienez, antzeko ideiak erantsi dira, bi gaitasun irakasle funtzioak ikasgelan behar bezala betetzeko orduan nagusi izanda: autokudeaketa (autokontrola) eta pertzepzio emozionala.

Nik aipatuko nuke konpetente izatea emozionalki, nik dakidanez, izaten da ba identifikazio egiteko gai izatea, emozioak identifikatzeko gai. Bai besteengan, irakasle bezala, ikasleengan eta bai gure buruarengan. Ez hori bakarrik baizik eta baita ere gai izatea autoerregulatzeko eta besteak erregulatzeko laguntzeko (Parte-hartzaile 4 FG).

Parte-hartzaileek beren esperientzien eta aukeren inguruko ideiak ere gehitu dituzte **hezkuntza emozionala eta konpetentzia emozionala lantzeko orduan**. Dударik gabe, ikaskuntza emozionalako prozesuak gauzatu behar dira eskolan, eta horietan irakaslea da jarraitu beharreko gida eta adibidea. Hala ere, irakaslearentzat ez da beti erraza izaten egoera gatazkatsuak, jokabide disruptiboak eta ikasleek egunez egun azaltzen dituzten emozioen nahasketa kudeatzea eta ebatzea. Horrela adierazi dute parte-hartzaileek haien esperientzia pertsonaletan oinarrituz. *“Nik daukat mutiko bat, benetan zaila dela. Goizero hartzen dut kotxea eta esaten diot nire buruari: “Venga Izas, suave, zuk ahal duzula”. Baina azkenean norberak nola dagoen eta beste mila gauza, oso kontzientea zara txarto zaudenean egiten umearekin.”* (Parte-hartzaile 1 FG). *“Justu ni ordezkatzeko nago bajaran dagoen bat, ezin zuela gehiago taldearekin. Ezin zuen gehiago. Bera bazeukan bere motxila eta hori badakigu bakoitza bere egoera duela baina taldeak, eta hori da beste kontu bat, zer errealitate dugun geletan.”* (Parte-hartzaile 5 FG).

Egoera horietan, irakasleak ez daki nola kudeatu ikaslearen emozioak, eskoletan ez ezik, lanbide-prestakuntzetan ere gertatzen dira horrelako egoerak, non unibertsitateko irakasleek ez baitute

baliabiderik ikasleei laguntzeko. Elkarrizketa honetan parte hartu duen unibertsitateko irakasleak horrela adierazi du.

Gainera irakaslearen ikuspegitik zaila egiten zaigu ikasle batek ondo ez dagoenean, ez da erraza izaten joatea eta galdetzea a ver ondo dagoen. Baina niretzako behintzat ez da nahikoa galdetzearekin, ikasleak eza du bere arazoak konponduko galdera simple batekin ezta? Ez dakit, zaila da egoera ikasle eta irakasle bezala (Parte-hartzaile 4 FG).

Aldi berean, elkarrizketatuek adierazi dute askotan beste irakasle batzuen laguntza eta talde-lana behar izan dutela, gatazketarako konponbide egokiak lortzeko. Ez dago zalantzarik irakasle-taldearen arteko komunikazio eta koordinazio ona beharrezkoa dela. *“Justo orain, beste aholkularia, egon da bideratzen arazo bat bi mutikoen artean, ze elkar jo ziren futbol partido batean. Eta egon ginen pentsatzen a ver zer egin egoerarekin (...) egoeraren benetako larritasunarekin.”* (Parte-hartzaile 5 FG).

Hala ere, askotan prestakuntza falta handia izaten da, eta irakasleak berak galduta aurkitzen dira. Elkarrizketa honetan argi ikusi ahal da irakasleak motibatuta daudela ikasteko modu berriak arakatzeko, baina behar diren baliabide eta laguntzarik gabe autodidakta moduan prestatzera behartuta daude. *“Partzuegoan egon nintzenean lanean nik ikusten nuen irakasleek askotan nahi zutela ikasi eta ulertu umeari, baita gauza berrietan sakondu. Umeari laguntzeko, irakasleak askotan gaude galduta eta mugitu behar gara gure burua ezagutzeko eta baliabideak lortzeko.”* (Parte-hartzaile 1 FG).

Aldi berean, argi izan behar da eskola ez dela irakasleak eta ikasleak beren emozioak lantzen dituzten leku bakarra. Talde foacalan adierazi egin den bezala, inguratzen gaituen **testuingurua** funtsezko faktorea da kognitiboki, fisikoki eta emozionalki garatzeko. Hau da, eguneroko gertakariak emozio negatiboak eta positiboak eragiten dituzte. *“Ba zu ez zaude berdin, altxatzen bazara ohetik eta bapatean zure bikotearekin haserretzen zara, ezin duzu parking aurkitu, diru asko kobratu dizute ura erosi duzunean, euria eta hanka bustitak...eta jarri zara umearen aurrean. Zuk hor, zure emozioak hor daude.”* (Parte-hartzaile 1 FG).

Inguruneak emozio positiboak edo negatiboak sortzera eraman daiteke, baina, horrez gain, norberaren **nortasuna** ere funtsezko faktorea izango da sentimenduak kudeatzeko eta adierazteko orduan. Kontuan izan behar da pertsona bakoitzak bere ezaugarriak eta jokabideak dituela, eta horiek egunez egun erabakiak hartzera eramaten duela. *“Nik uste dut gauza guztiak ezin direla ikasi, gauzak batzuk bakoitzak berea ditu... Zuk hitz egin dezakezu ehun eta berrehun formakuntza orduak baina zurekin ez badoa zuk ez duzu berezko gaitasun bat edo jarrera bat, ez du balio.”* (Parte-hartzaile 5 FG).

Hezkuntza emozionala eta kompetentzia emozionalen inguruko trebakuntza edo formazioaren inguruan, beren esperientzia pertsonalak ezagututa, esan daiteke parte-hartzaile gehienek ezin izan dutela beren ongizate emozionala lantzen duten prestakuntzarik jaso. *“Baina bai pentsatzen dut hezkuntza formalean, bai goi maila eta lehenengo mailan unibertsitatea, ez dut ikusten lanketa hori eta adibidez hezkuntza ez formalean bai ikusten dut asko.”* (Parte-hartzaile 3 FG)

Bi parte-hartzaile ikasleek, batez ere, unibertsitate-graduako prestakuntza falta azpimarratzen dute, eta landutako edukiak batez ere teorikoak direla gehitzen dute.

Nik sentitu dut urte hauetan eduki interesgarri asko lantzen direla, eta, a ver , oso garrantzitsuak azkenean irakasle izateko, baina batez ere teorikoak: historia, matematikak... Oso ondo dago hori, baina ez dago gure emozioetan zuzenean zentratzen den apartaturik, guran pertsona gisa, bizi dugun guztia kudeatzeko moduan (Parte-hartzaile 2 FG).

Hala ere, haiek ere gaineratu dute hori gertatzen dela edukiak lantzeko denborarik ez dagoelako. Hots, unibertsitate-ikastaroetarako planteatutako denboralizazioak ez du aukerarik ematen emozioen inguruko edukiak gehitzeko. *“Nire kasuan, ikusi dudanaren arabera, oraindik emozioak ez daude sisteman sartuta. Denboralizazioa dela eta.(...) Ordun non sartzen da, non dago lekua, benetako esku hartze bat egiteko denbora, zure emozioak lantzeko.”* (Parte-hartzaile 2 FG).

Aurretik aipatutako guztia aztertuta, parte-hartzaileen ahotsen bidez hauteman daiteke etorkizuneko irakasleen ikasgeletan prestakuntza-premia dagoela. Are gehiago, behar horiei erantzuten ez bazaie, oztopo bihurtzen dira lan-bizitza hurbilean. *“Baina aldi berean aukera eman behar digute ezta? Askotan gogoekin bakarrik ezin dugu zerbait egin. Erreferenteak behar ditugu, baliabideak eta aukerak. Metodologia dena emozioei buruz nik bakarrik aurkitu behar nuen.”* (Parte-hartzaile 1 FG). *“Momentu horretan esan nuen agian hau irakasle izateko etorkizun batean landu egin behar da, ze azkenean ere bai irakasle bezala ere pertsonak gara eta sentimenduak daukagu. Nire ustez bai hori landu behar da.”* (Parte-hartzaile 3 FG).

Aurrekoarekin batera, azterlan honetan parte hartu dutenen ahotsen bidez, **hobetzeko eta jarduteko hainbat proposamen** jaso dira, gaur egungo prestakuntza-erakundeetan ematen den hezkuntza emozionalari buruzko prestakuntzari dagokionez. Proposamen horiek gaitasun emozionalen lanketan, baliabide material eta funtzionalen presentzian eta prestakuntza-erakundeetan profesionalen premian oinarritzen dira bereziki.

Gaitasun emozionalen lanketari buruz hitz egiten hasten bada, esan daiteke parte-hartzaileek interes berezia dutela erregulazio emozionalarekiko eta kontzientzia emozionalarekiko.

Ikasi behar dugu identifikatzea eta bestearen aurrean jartzea. Pazientzia gutxiago izango duzu, ikasiko dituzu mila gauza, baina aurretik zure burua kontrolatu, zure burua nola dagoen jakin. Hain da importantea eta badakizu batzuen aurrean nola salto egiten duzun eta da hori, etxerako lanak egitea eta formazio asko (Parte-hartzaile 1 FG).

Bakoitzak landu behar dituen baliabide eta gaitasun pertsonalez gain, ikerketan hezkuntza-sistemak eta haren edozein erakundek funtzionatzea eragiten duten baliabide funtzionaletako batzuk ere izendatu dira. Denbora, prestakuntza edo dirua dira parte-hartzaileek elkarriketan gehien aipatzen dituzten baliabide funtzionaletako batzuk, hiru faktore horiek beharrezkoak baitira edozein prestakuntza gauzatzeko. Hala ere, prestakuntza emozionalari dagokionez, parte-hartzaileek azpimarratu dute gaur egun prestakuntza-erakundeetan ez dagoela baliabide funtzional nahikorik.

Ba nik azpimarratzea berriro hori nire ustez behar direla profesional gehiago(...) nik ere eskertuko nuke hemen unibertsitatean. Batzuetan talde lanak egiten dira, gatazkak sortzen dira, ez dakigu nola esku hartu... baita ere lagungarri litzaidake norbaitek galdetzeko eta entzuteko a ver berak nola jokatu zuten (Parte-hartzaile 4 FG).

Baliabide funtzionalak ez dira parte-hartzaileek izendatu dituzten elementu bakarrak; aitzitik, baliabide materialak eskuratzeko beharra eta garrantzia azpimarratu da. *“Niri gustatuko litzaidake, lehen mailako ikasle bezala, hastean lan emozionalari denbora bat eskaintzea, no se ematea liburu bat, hitzaldi bat, banakako eta taldeko jarduerak... hasieratik emozionalki prestatuko gaituzten tresnak.”* (Parte-hartzaile 3 FG).

Baliabide materialak askotarikoak dira, baina ikerketa honetako parte-hartzaileek garrantzi berezia eman diote **Komunikazioaren eta Informazioaren Teknologien** erabilerari, gero eta presentzia handiagoa baitute ikasgeletan. Parte-hartzaileen artean pentsamendu komuna dagoela ikus daiteke, nahiz eta batzuen artean belaunaldien arteko aldeak egon. *“Ba, nire ikuspuntutik, taldeko zaharrena naizela ematen du (barreak)... teknologia berriak oso ondo daude (...) ikasten duzunean eta irakasten dizutenean, oso garrantzitsua dela erabiltzen laguntzea, mundu berri bat ikusten duzu.”* (Parte-hartzaile 1 FG).

Oro har, parte-hartzaileek uste dute teknologia berriak ezinbestekoak direla irakasleak prestatzeko, ematen den hezkuntzaren kalitatea hobetu baitezakete. *“Erabat, niri, batez ere ikasleekin eta gainerako irakasleekin komunikatzeko edo eskoletan familiekin komunikatzeko, asko errazten dizu dena. Gainera, milaka aplikazio daude, eta ez dakizu nondik hasi ere.”* (Parte-hartzaile 4 FG). Hori ez ezik, hezkuntzako profesionalen arteko komunikazioa eta lankidetzaren errazten dute, prestakuntza-aukera

berriak ematen dituzte eta ikasgelan tresna teknologikoak erabiltzea ahalbidetzen dute.“ *Niri asko lagundu didate informazioa bilatzen, gai jakin bati buruz ez nekienean, berehala aurkitzen dituzu baliabide eta ideia berriak, en un click... niretzat, horrekin jaio ez naizela es una pasada.*” (Parte-hartzaile 1 FG).

Horretaz gain, ikus daiteke parte-hartzaile gehienek, bereziki gazteenek, etengabe erabiltzen dituztela sare sozialak. Parte-hartzaile horiek erreferentzia positiboak eskaini dituzte sare sozialak eguneroko bizitzan erabiltzeari buruz, eta argudiatu dute sare horiek hezkuntza-baliabideak eta -materialak partekatzeke, talde-lana eta elkarlana sustatzeko, denbora errealean komunikatzeko eta ikaskuntza-komunitateak sortzeko erabil daitezkeela. “*Sare sozialek ere asko lagutzen digute, azkenean ideia eta pentsamenduak partekatzen ditugu, jende gaztea behintzat. Gaur egun konektatu egiten gaitu eta identifikatuta eta entzunda sentiarazten gaitu. Hala sentitzen dut nik behintzat.*” (Parte-hartzaile 3 FG). “*Sare sozialen bidez egungo hezkuntza nahiko kritikatzeko duen neska da, eta, umorea erabiliz, egia handiak esaten ditu. Ondo dago, askotan irakurtzen dudalako eta identifikatuta sentitzen naizelako eta pentsatzen dut: bale ez naiz irakaskuntzan horrela sentitzen den bakarra.*” (Parte-hartzaile 5 FG).

Azkenik, parte-hartzaileek beste baliabide bat gehitzen dute, horietako asko identifikatuta senti daitezke: **hizkuntza artistikoak**. “*Musika, adibidez, diziplina ezin hobea da emozioak eta sentimenduak lantzeko. Musikak mugitzen gaitu, ezta? entzuten dugunean sentitzen dugu.*” (Parte-hartzaile 4 FG).

Ikerketan parte hartu zutenen artean, artea bere forma guztietan erabiltzen duten hainbat pertsona ditugu, irakaskuntza-ikaskuntza egoerak sortzeko baliabide gisa. Beraz, argi eta garbi ikus daiteke diziplina horiek balio handia dutela beren bizitzan eta prestakuntzan, batez ere ongizate emozionalean.

Dramatizazio-minorrean ikusi ahal izan dut antzerkiak eta arteek, orokorrean, asko lagun diezaguketela gure barrua lantzen eta sentitzen duguna keinuen eta soinuen bidez eta, oro har, gure gorputza azaleratzen. Oso modu ona iruditzen zait elkar ezagutzeko eta egia adierazteko eta komunikatzeko moduak ezagutzeko. Gainera, ondo pasatzen duzu eta hori da garrantzitsua (Parte-hartzaile 2 FG).

Lortutako emaitzetatik gehitu daiteke hizkuntza artistikoek, hala nola musikak, dantzak, antzerkiak, ikusizko arteek eta literaturak, hainbat onura izan ditzaketela hezkuntzan. Onura horietako batzuen artean daude kontzientzia emozionala hobetzea, empatia eta ulermena sustatzea, eta ongizate emozionalean laguntzea, ez haurtzaroan bakarrik, baizik eta bizitza osoan ere. “*Noski, gure ikasleei edo haurrei erreparatu besterik ez dago. Haien gozatu egiten dute sortzen eta jardueran artistikoetan parte*

hartzen, eta beren mundu emozionala islatzen dute. Beraz, guk ere erabil ditzakegu eta modu berean lagunduko digute.” (Parte-hartzaile 5 FG).

5. ONDORIOAK

5.1. PARTE-HARTZAILEEN AHOTSEN BIDEZ ATERATAKO ONDORIOAK

Lortutako emaitzak aztertu ondoren, hainbat ondorio atera daitezke ikerketa honetako parte-hartzaileen ahotsetatik abiatuta. Emaitzek erakusten dutenez, egungo hezkuntza-sistemako irakasleek eta etorkizuneko irakasleek hezkuntza emozionala baloratzen dute, eta beharrezkotzat jotzen dute hezkuntza emozionalaren presentzia irakasleen prestakuntzan. Bisquerra (2009) ikerlariaren ideiek askotan babesten dute eduki emozionalak irakasleen prestakuntza-programetan agertzea, modu jarraituan eta planifikatuan.

Ikerketa honetako parte-hartzaileek argi utzi dute emozioak funtsezko faktoreak direla irakaslearen bizitzan, emozioak ikasgelako egunerokotasunaren parte baitira. Egiaztatu ahal izan denez, ikasgeletan ikasleen eta irakasleen ehunka emozio eta pentsamendu elkartzen dira egunero, eta egoera positiboak eta negatiboak sortzen dira (Day, 2011). Parte-hartzaile horiek bezala, irakasleak gelako egoera emozionalak kudeatzeko eta horiei erantzuteko arduradun nagusia sentitzen dira. Horretarako, beharrezkoa da irakasleek beren adimen emozionala lantzea, hori baita hezkuntza-prozesu gehien oinarria (Bisquerra, 2009).

Lortutako ekarpenak kontuan hartuta, elkarriketatuentzat adimen emozionalaren barruko gaitasun garrantzitsuenak emozioak identifikatzea eta kudeatzea direla esan daiteke. Itxuraz, bi gaitasun horiek jotzen dira garrantzitsuentzat irakasle gisa jarduteko orduan eta, oro har, haurtzaroarekin harremana eta kontaktua izatean. Zalantzarik gabe, pazientzia irakaskuntzaren funtsezko ezaugarrietako bat da, eta, aldi berean, garatzeko ezaugarri pertsonal konplexuena. Irakasle garen aldetik, izena eman behar diegu gure emozioei, eta emozio horiek kudeatzen lagunduko diguten baliabideak eta teknikak aurkitu behar ditugu (Bisquerra eta García, 2017).

Hala ere, nabarmendu daiteke ikerketako parte-hartzaileak, bereziki ikasleak, ez direla gai sentitzen ikasgelan emozioak kudeatzeko arduradun gisa duten eginkizuna betetzeko. Ikus daitekeenez, irakasleek eta ikasleek beldurrak eta segurtasunik ezak dituzte txikientzat eredu bihurtzeko orduan, ez baitira beren emozioak kudeatzeko eta identifikatzeko gai sentitzen. Ezagutza eta gaitasun emozional falta horrek areagotu egiten du etorkizunean eta gaur egun irakasle direnen autoestimu txikia eta motibazio falta izateko aukera (Marcelo, 2010). Lortutako datu horiek bat datoz Lópezekin (2019), gero eta irakasle gehiagok irakaskuntza-nortasun amaitu gabea sentitzen dutelako ideian. Aldi berean, ondoriozta daiteke prestakuntza emozionalik eza dela amaitu gabeko

irakaskuntza-identitate horiek sortzen dituzten arrazoi nagusietako bat, eta, zenbait kasutan, identitate profesional negatiboak (Marcelo eta Vaillant, 2018).

Adierazitako guztiarekin batera, egiazta daiteke hezkuntza eremuko unibertsitate-gradueta ez dagoela prestakuntza-aukerarik. Ikusi dugunez, gaur egun ikasleari zuzendutako ehunka programa dauden arren (Abad eta Velasco, 2007; Borda, 2015; GROPE, 2023; Vitoria-Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, 2023), irakaskuntzako arduradunek aukera eskasak dituzte arlo hau lantzeko (Bisquerra, 2009). Elkarrizketan parte hartu zutenek bizitako esperientziak erakusten dute irakasleei zuzendutako eduki emozionalen gabezia handia dagoela, eta horrek eragina duela haien ongizate emozionalean eta, beraz, ikasgeletan betetzen duten funtzioan. Dударik gabe, eduki emozionalen falta hori da irakasle-eskolako ikasleek gaitasun sozioemozionalak irakasleen lanbideak eskatzen duena baino gutxiago garatuta izateko arrazoi nagusia (Herrán et al., 2014).

Hori ez ezik, gaur egungo eta etorkizuneko irakasleek gaitasun sozioemozionaletan prestatzeko interes aparta dutela ere ikus daiteke. Irakasleek gaiarekiko motibazioa eta jakin-mina erakusten dute, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak gauzatzeko funtsezko faktoreak. Baina behar diren baliabide funtzional eta materialik gabe, interes hori ez da benetako ezagutza bihurtzen. Elkarrizketan parte hartu zutenetako batek dioen bezala, irakasleek *“Erreferenteak behar ditugu, baliabideak eta aukerak”* (Parte-hartzaile 1 FG). Beraz, beharbada, edukiak egokitzetik eta unibertsitateko ikasgeletan horiei eskaintzen zaien denboratik hasi beharko litzateke aldaketa. Kontuan hartzen badugu emozioak gure egunerokotasunaren parte direla, ulertezina da ikaskuntza-espazioetan emozioei denbora ez eskaintzea. Unibertsitate-ikastaroen denboralizazioa egokitu egin behar da eduki emozionalen presentzia ziurtatzeko eta etorkizuneko irakasleen ongizate emozionala hobetzeko aukerak eskaintzeko.

Ikerketa honen emaitzek adierazten dutenez, baliabide funtzionalez gain, baliabide materialak ere beharrezkoak dira eduki emozionalak lantzeko. Argi izan behar dugu, parte-hartzaileek ondo adierazten duten bezala, material fisiko egokirik gabeko prestakuntza bat hutsik sentitzen dela eta zentzua galtzen duela. Dugarik gabe, giza baliabide onak izatea bezain garrantzitsua da hezkuntza zentroan irakatsi eta ikasteko prozesua erraztuko duten azpiegitura pedagogiko zein didaktiko materiala izatea. Kontuan izan behar da edozein ikastetxetako baliabide materialek ugariak eta askotarikoak izan behar direla, komunitateko parte-hartzaileen erabilera eta ezarritako helburu didaktikoak betetzea erraz dezaten.

Baliabide artistikoak implementatzea ideia egokia izan daiteke emozioak lantzeko orduan. Artea, bere forma guztietan, tresna egokia da gure emozioen adierazpena lantzeko eta gure barne-mundua esploratzeko (Tesserras, 2017). Emaitzetan ikusi ahal izan dugunez, parte-hartzaile

askok harreman zuzena izan dute hizkera artistikoekin irakasle gisa trebatu direnean. Haien ekarpenak kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu arteak, musikak edo antzerkiak bezala, beren adierazpen-gaitasunak lantzen eta emozioak azaleratzen lagundu dietela, eta, horrela, beren ongizate emozionala hobetu dela. Hala ere, ikasle guztiek ez dute baliabide artistikoak eskuratzeko aukerarik beren lanbide-heziketan, kasu askotan eduki horiek aukerakoak baitira (Navarro, 2003). Horregatik, arteak edukien lanean diziplinarteko moduan sartzea oso positiboa izan daiteke etorkizuneko irakasleentzat. Parte-hartzaileetako batek esan duen bezala *“Gure ikasleei edo haurrei erreparatu besterik ez dago. Haien gozatu egiten dute sortzen eta jarduera artistikoetan parte hartzen, eta beren mundu emozionala islatzen dute. Beraz, guk ere erabil ditzakegu eta modu berean lagunduko digute.”* (Parte-hartzaile 5 FG).

Hala ere, lanbide-heziketan emozioak lantzea zaildu egiten da, emozioak bigarren mailan daudela kontuan hartzen badugu. Parte-hartzaileek argi utzi dute gizarte frenetiko batean bizi garela, non denbora oso ondasun preziatua den. Hori horrela izanik, gure ongizateari denbora gutxi eskaintzeko joera dugu. Gaur egun, gazteek batez ere, ez dute beren nortasuna lantzeko astirik, ezta motibaziorik ere. Kontuan izan behar dugu, ikerketako parte-hartzaileek esaten duten bezala, prestakuntza presentzialek ez diotela malgutasunik eskaintzen gizabanako bakoitzari. Hau da, pertsona bakoitzak bere errutina eta ordutegiak ditu, eta horrek zaildu egiten du ikasle eta irakasle askok parte hartzea erakundeek planteatzen dituzten jardueretan eta prestakuntzan.

Hori horrela izanik, irakasleen ongizatea hobetzeko baliabide digitalak ezartzea prozesu interesgarria izan daiteke. Teknologia berriak gero eta gehiago gure errutinaren parte dira, eta gaur egun erabat normalizatuta dago horien erabilera (LOMLOE, 2020; Robles-Meléndez, 2012). Horregatik, irakasleen bizi-kalitatea hobetzeko horiek erabiltzea ideia egokia izan daiteke. Bereziki egungo ikasleentzat, belaunaldi digitalean bertan jaio baitira (Salazar, 2018). Gazte horientzat, ikerketako parte-hartzaile gazteenetan ikus daitekeenez, gailu mugikorren eta tresna digitalen erabilera positiboa da, eta nabarmen aberasten du haien bizitza. Oro har, mundu digitalak parte hartzeko eta komunikatzeko aukera ugari eskaintzen ditu, eta, hala, irakasleek edukien lanketa autonomoa gauzatu dezakete.

Gainera, hezkuntza emozionala ezagutza-gai ukiezina da, hau da, zaila da haren edukia azaltzea eta ulertzea (Salazar, 2018). Hori horrela izanik, tresna digital horiek emozioak bezalako gaiak lantzeko aukera ematen digute, gure pentsamenduei eta emozioei forma eta esanahia eman diezaiekutelako.

Oro har, funtsezkoa da etorkizuneko irakasleak prestatzen dituzten erakundeek jarduera-proposamenak egitea, ikasleen ahotsak kontuan hartuta. Horren ondorioz, gure

hezkuntza-esku-hartzeak askoz ikuspegi integralagoa hartzen du, kalitatezkoa da eta zentzua ematen dio gure zereginari. Jarraian, parte-hartzaileen ahotsetan eta lan honen ikerketetan oinarritutako jarduera-proposamena azaltzen da.

5.2. PROPOSAMENA: “BIHOTZ-ZAINTZA” BALIABIDE DIGITALA

Kontuan hartuta irakasleen hasierako prestakuntza integrala izan behar dela eta, beraz, emozioen gaiari buruzko ikaskuntza ekarri behar duela, hurrengo atalean Hezkuntza Emozionalari buruzko tresna digital bat proposatzen da. Zehazki, etorkizuneko eta egungo irakasleei baliabide digital bat eman nahi zaie, beharrezkoa den guztietan doan eskuratu ahal izateko, haien ongizate emozionala bermatzeko.

Horretarako, elkarrizketatutako pertsonen ideiak eta gauzatutako errebisio bibliografikoa hartu dira erreferentziatzat. Hots, testuinguruaren hasierako analisiaren bidez lortutako emaitzen arabera baliabide digitalean landutako edukietako batzuk proposatzen dira. Horrenbestez, lortutako emaitzek aukera ematen digute jakiteko zer gaitasun emozional diren lehentasunezkoak esku hartzeko programan eta zein diren irakasleen beharrak. Garrantzitsua da gehitzea baliabide hori eraldatu egin daitekeela, hura gauzatzen den testuinguruaren arabera. Beharrezkotzat jotzen bada, beste eremu batzuekin erlazionatu ahal izango da eta edukietan zabaldu. Are gehiago, baliabide digital hori unibertsitatearen webgunean gehitzea proposatzen da, ikasle guztiek zuzeneko sarbidea izan dezaten bertara.

“Bihotz-zaintza” baliabide digital horren bidez, irakasleak bere ongizate emozionalera bideratutako informazioa eta baliabideak jaso ahal izatea bilatzen da. Baliabide eta eduki horiek, zehazki, arte-hizkuntzekin lotu dira, lanketa emozionalean onura asko dituen eremua. Horrekin batera, elkarrizketatutako pertsonen ahotsak eta haien beharrak kontuan hartuta, hiru eduki-multzo sartzea proposatzen da: Kontzientzia emozionala, emozioen erregulazioa eta autoestimua (ikusi 3. Taula).

3. Taula: “*Bihotz-Zaindu*” baliabide digitalaren edukien taula.

ATALA	EDUKIAK	HELBURUAK
1	Emozioak eta ongizate emozionala	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Emozioaren kontzeptua ezagutzea ➤ Ongizate emozionalaren kontzeptua ezagutzea ➤ Emozio motak eta horien sailkapena ezagutzea ➤ Kontzientzia emozionalaren garapena sustatzea

2	Estresaren eta emozio negatiboen kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Emozio negatiboak detektatzea eta horiek osasunean dituzten ondorioak ezagutzea ➤ Emozioen erregulazioa lantzea ➤ Bulkadak kontrolatzeko beharrezko gaitasunak eskuratzea ➤ Estresa kudeatzeko jarduerak eta baliabideak eskaintzea, jolas simbolikoaren bitartez (Abad eta Velasco, 2007).
3	Autoestimua eta onarpenaren garrantzia	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Emozio positiboek osasunean dituzten ondorioak ezagutzea ➤ Autoestimua kontzeptua lantzea ➤ Autoestimua sustatzea ➤ Autoestimua sustatzeko jarduerak eta baliabideak eskaintzea
4	Artearen onurak irakasleen ongizate emozionalean	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Arteak irakasleei beren ongizatea hobetzeko eman diezazkiekeen onura espezifikoak deskribatzea. ➤ Arte-hizkuntzak ezagutzea eta lantzea. ➤ Ekintzak proposatzea, besteak beste, collageak sortzea, poesia idaztea, antzerki-inprobisazioa, marrazkiak edo pinturak egitea (Aristizabal et al., 2014; Tesserras, 2017).
5	Ongizate emozionalerako baliabideak eta tresnak	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Meditazio gidatuen atala: aplikazioak iraupen desberdinetako meditazio gidatu ugari eskaintzen ditu, irakasleei beren egunerokoan lasaitasuna eta lasaitasuna aurkitzen laguntzeko. ➤ Arnasketa-ariketen atala: aplikazioak arnasketa-ariketa batzuk barne hartzen ditu estresa eta antsietatea murrizteko (Borda, 2015). ➤ Estresa eta antsietatea kudeatzeko aholkuen atala: aplikazioak gomendio praktiko batzuk eskaintzen ditu irakasleei beren eguneroko bizitzan estresa eta antsietatea maneiatzen laguntzeko (Borda, 2015). ➤ Ongizate emozionalarekin lotutako albisten eta artikuluen atala: aplikazioak irakasleen ongizate emozionalarekin lotutako albisten eta artikuluen atal bat barne hartzen du, liburuen gomendioak, duela gutxiko ikerketak eta beste albiste garrantzitsu batzuk barne.

		➤ Musikaren eta artearen atala: osasun mentala eta emozionala sustatzen duten jarduera artistikoen, liburuen, podcast-en, filmen eta musikaren webguneetarako estekak sar daitezke (Aristizabal et al., 2014; Tesserras, 2017).
6	Irakasleen eta ikasleen komunitatea	Irakasleen komunitate bat sortzea, erabiltzaileek beren esperientziak eta aholkuak beste profesional batzuekin partekatzeke aukera izan dezaten (Borda, 2015).

Oharra. Iturria: elaborazio propioa.

5.3. AZTERLANAREN MUGAK, EKARPENAK ETA HOBEKUNTZA POSIBLEAK

Ikerketa honek muga batzuk aurkeztu ditu, eta, ondorioz, ikerketa bera hobetzeko aukera planteatu da. Hasteko, ikerketa honen muga nagusia da lortutako emaitzek hezkuntza-sistemako bost parte-hartzailereren ideiei eta pentsamenduei soilik erantzuten dietela. Hau da, emaitzak ezin dira orokortu gainerako ikasle eta irakasleentzat. Gauzak horrela, etorkizuneko ikerketetarako interesgarria litzateke parte-hartzaileen kopurua handitzea, erantzun sorta zabalagoa lortu ahal izateko.

Horrekin batera, parte-hartzaile gazteen presentziak ikasle eta irakasle nagusien pentsamenduak eta ideiak baztertu ahal izan ditu. Ikusi ahal izan dugunez, parte-hartzailerik helduenak ekarpen interesgarriak egin dizkio ikerketari; beraz, ikerketan aniztasuna areagotzea kontuan hartu beharreko hobekuntza da. Adinaren araberrako aniztasuna ez ezik, hezkuntza-sisteman duen zereginaren araberrako aniztasuna ere gehitu behar da. Ikerketa honetarako ez ziren familiak kontuan hartu, hezkuntzan eta haurtzaroan funtsezko pertsonak. Etorkizuneko ikerketetan familiak kontuan hartzea interesgarria eta aberasgarria izan daiteke. Azkenik, azterlanaren mugei dagokienez, egindako elkarrizketan planteatutako galderen sistematizazioa aipatu behar da. Ikusi ahal izan denez, galderak, moderatzailearentzat erabilgarriak izan eta elkarrizketa zuzentzen lagundu arren, solasaldian landu beharreko gaiak mugatzen dituzte. Etorkizuneko azterlanetan ideia ona izan liteke parte-hartzaileei esku hartzeko askatasun handiagoa eskaintzea.

Hala eta guztiz ere, ikerketa honek erakutsi du hezkuntza emozional ona behar dela ikasleen eta irakasleen prestakuntzan. Argi utzi da etorkizuneko eta egungo irakasleek kalitatezko arreta integrala merezi dutela beren emozioei dagokienez, eta arte-hizkuntzak eta teknologia berriak tresna ezin hobeak direla prozesu hori aurrera eramateko. Zehazki, lan honek gako garrantzitsuak ematen ditu irakasleen prestakuntzarako etorkizuneko baliabideak eta programak diseinatzeke, eta justifikatzen du konpetentzia emozionalak ezartzea irakasleen hasierako eta etengabeko

prestakuntzan. Era berean, lan honen bidez, hezkuntza-sistemaren arduradunen ideiak eta pentsamenduak entzutearen garrantzia frogatu ahal izan da. Irakasleei ikasleen beharrei erantzuteko eskatzen zaien bezala, irakasleek ere erantzun bera izan beharko lukete prestakuntza-erakundeen aldetik, haien ongizate emozionalari dagokionez. Zalantzarik gabe, irakasleen ongizate emozionalak hezkuntza positiboagoa eta aberasgarriagoa sustatzen du, bai ikaslearentzat, bai irakaslearentzat. Cabello (2011, o. 188) autoreak dioten bezala, “en la inteligencia emocional, hacemos cosas ordinarias que hacen a las personas extraordinarias.”

6. ERREFERENTZIAK

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haur-curriculumua ezarri eta ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria. Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk., 1-50. or. <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2016/01/1600142a.pdf>

Aristizabal, P., Gómez-Pintado, A., Lasarte M. G., Tresserras, A., Alvarez-Uria, A., eta Zelaieta E. (2014). La expresión y comunicación a través de la dramatización. In Grado de EI en la EU de Magisterio de Vitoria-Gasteiz. En García Sempere, P.; Tejada Romero, P. y Ruscica, A. (Coords.), *Experiencias y propuestas de investigación y docencia en la creación artística* (77-88). Editorial Universidad de Granada.

Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de investigación educativa*, 21 (1), 7-43.

Bisquerra, R. (2005). La educación emocional en la formación del profesorado. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 95-114.

Bisquerra, R. (2009). *Psicopedagogía de las emociones*. Síntesis.

Bisquerra, R. eta García, E. (2018) La educación emocional requiere formación del profesorado. *Participación Educativa. Revista del consejo escolar del estado*, 5(8), 15-27.

Bisquerra, R. eta Pérez, N. (2007). Las competencias emocionales. *Educación XXI*, 10, 61-82.

Bisquerra, R eta Pérez, N . (2012). Educación emocional: Estrategias para su puesta en práctica. *Revista de la Asociación de Inspectores de Educación de España*, 16, 1-11.

Borda, M. (2015). Dramatización infantil: una propuesta de reconstrucción del conocimiento experiencial. *Ensayos: revista de la Escuela Universitaria de Formación del Profesorado de Albacete*, 30, 247-258.

- Cabero-Almenara, J. eta Martínez, A. (2019). Las tecnologías de la información y comunicación y la formación inicial de los docentes: modelos y competencias digitales. *Profesorado. Revista de currículum y formación del profesorado*, 23(3), 247-268.
- Castaño, C. eta Quecedo, R. (2002). Introducción a la metodología de investigación cualitativa. *Revista de Psicodidáctica*, 14, 5-39.
- Chaves, C. R. (2005). La categorización un aspecto crucial en la investigación cualitativa. *Revista de investigaciones Cesmag*, 11, 113-118.
- Day, C. (2011). *Pasión por enseñar. La identidad personal y profesional del docente y sus valores*. Narcea.
- Escobar, J. eta Bonilla-Jiménez, F. (2017). Grupos focales: una guía conceptual y metodológica. *Cuadernos hispanoamericanos de psicología*, 9(1), 51-67.
- Fernández, J.M. eta Tadeu, P. (2019). Educación emocional y TIC. *Emociones: revista de expresión y comunicación emocional*, 3, 64-73.
- Galaz, A. (2011). El profesor y su identidad profesional ¿facilitadores u obstáculos del cambio educativo? *Estudios Pedagógicos XXXVII*, 2, 89-107.
- García, C. M. (2010). La identidad docente: constantes y desafíos. *Revista interamericana de investigación, educación y pedagogía*, 3(1), 15-42.
- García, M. E. (2017) *Bienestar Emocional en Educación: Empecemos por los Maestros*. Tesis doctorala. Murtziako Unibertsitatea.
- García, M. eta Giménez, S.I. (2010). La inteligencia emocional y sus principales modelos: propuesta de un modelo integrador. *Espiral. Cuadernos del Profesorado*, 3(6), 43-52.
- Goleman, D. (1995). *Inteligencia Emocional*. Kairós
- Goleman, D. (1996). *Inteligencia Emocional*. Kairós
- Goleman, D. (1998). *La práctica de la Inteligencia Emocional*. Kairós.
- Goleman, D. (2001). Emotional intelligence: Issues in paradigm building. In C. Cherniss y D. Goleman (Eds.) *The emotionally intelligent workplace* (13–26). Jossey-Bass.
- Grup de Recerca en Orientació Psicopedagògica GROU. (2023, Urtarrilak 9). Grupo de investigación en orientación psicopedagógica [webgunea]. <http://www.ub.edu/grop/es/presentacion-grop/>

- Hamui-Sutton, A. eta Varela-Ruiz, M. (2013). La técnica de grupos focales. *Investigación en Educación Médica*, 2(5), 55-60.
- Herrán, E., Orejudo, S., Martínez de Morentín de Goñi, J. I., eta Ordeñana, M. B. (2014). Actitudes docentes y autonomía en Educación infantil 0-2: un estudio exploratorio en la comunidad autónoma del País Vasco (CAPV). *Revista de Educación*, 365, 150-176.
- Keefer, K. V. (2015). Self-report assessment of emotional competencies: A critical look at methods and meanings. *Journal of Psychoeducational Assessment*, 33(1), 3-23. <https://doi.org/10.1177/0734282914550381>
- Krueger, R., & Casey, M. (2000). *Focus Groups: A Practical Guide for Applied Research*. Sage Publications.
- Krueger, R. (2006). Is it a focus group? Tips on how to tell. *Journal of Wound Ostomy & Continence Nursing*, 33(4), 363-366.
- Lasky, S. (2005). A Sociocultural Approach to Understanding Teacher Identity, Agency and Professional Vulnerability in a Context of Secondary School Reform. *Teaching and Teacher Education*, 21, 899-916.
- Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. Boletín Oficial del Estado, 340, de 30 de diciembre de 2020, 122868-122953. <https://www.boe.es/boe/dias/2020/12/30/pdfs/BOE-A-2020-17264.pdf>
- López, A. (2019). *Análisis de la identidad docente a través de metodologías activas: nuevas metodologías para promover el pensamiento crítico*. [Master amaierako lana]. Hezkuntza eta Kirol Fakultatea. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- López, E. (2005). La educación emocional en la educación infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 153-167.
- Malaguzzi, L. (2005). *Los cien lenguajes de la infancia*. Rosa Sensat.
- Marcelo, C., eta Vaillant, D. (2018). La formación inicial docente: problemas complejos-respuestas disruptivas. *Cuadernos de Pedagogía*, 489, 27-32.
- Martínez de la Hidalga, Z., eta Villardón Gallego, L. (2014). La imagen profesional del profesorado en formación continua. *Revista Fuentes*, 12, 187-212.
- Martínez-Migueléz, M. (1999). La investigación cualitativa etnográfica en educación. Trillas.
- Mayer, J. D., Salovey, P., eta Caruso, D. R. (2004). Emotional intelligence: Theory, findings, and implications. *Psychological Inquiry*, 60, 197-215.

- Mayer, J.D., Salovey, P. eta Caruso, D.R. (2000). Models of emotional intelligence, In R.J. Sternberg (Ed.), *Handbook of intelligence* (396-420).Cambridge University Press methods and meanings. *Journal of Psychoeducational Assessment*, 33(1), 3-23.
- Mayer, J.D. eta Salovey, P. (1993). The intelligence of emotional intelligence. *Intelligence*, 17, 433-442.
- Mayer, J.D. eta Salovey, P. (1997). What is emotional intelligence?. In P. Salovey and D. Sluyter (Eds). *Emotional Development and Emotional Intelligence: Implications for Educators* (3-31. or.). Basic Books.
- Mayring, P. (2015). Qualitative content analysis: Theoretical background and procedures.A. Bikner-Ahsbahs, C. Knipping, eta N. Presmeg-en (Edk.), *Approaches to qualitative research in mathematics education: Examples of methodology and methods* (oo. 365-380). Springer.
- Ministerio de Educación y Formación Profesional. (2022, ekainak 23). *La competencia digital de los docentes será homologable en todo el país* [Webgunea]. <https://www.educacionyfp.gob.es/prensa/actualidad/2022/06/20220623-sectorial.html>
- Navarro, M. R. (2003). La formación inicial del profesorado en las universidades públicas españolas para el uso de la dramatización en el aula. *Enseñanza*, 21, 181-198.
- Navarro, M.R. (2006). Drama, creatividad y aprendizaje vivencial: algunas aportaciones del drama a la educación emocional. *Cuestiones Pedagógicas*, 18, 161-172.
- Núñez-Gómez, P., García-Guardia, M. L., eta Hermida-Ayala, L.A. (2012) Tendencias de las relaciones sociales e interpersonales de los nativos digitales y jóvenes en la web 2.0. *Revista Latina de Comunicación Social*, 67, 1-28.
- Palmer, P.J. (1998). *The Courage to Teach: Exploring the Inner Landscape of a Teacher's Life*. Jossey-Bass.
- Rodas, F. D. eta Pacheco, V. G. (2020). Grupos Focales: Marco de Referencia para su Implementación. *INNOVA Research Journal*, 5(3), 182-195.
- Ruiz de Velasco, A. eta Abad, J. (2007). Propuesta metodológica para la asignatura Dramatización del plan de estudios de Magisterio, educación infantil. *Pulso*, 30, 143- 170

- Sachs, J. (2005). Teacher education and the development of professional identity: Learning to be a teacher. En P. Denicolo eta M. Kompf (Eds.), *Connecting policy and practice: Challenges for teaching and learning in schools and universities* (5-21). Routledge.
- Salazar, R. (2018). *TIC y Emociones en Educación Infantil: una propuesta didáctica*. (Gratu Amaierako lana). Universidad Internacional de la Rioja. (Hezkuntza Fakultatea). Espainia.
- Sancho, J. M., eta Correa Gorospe, J. M. (2013). Aprender a ser maestra. Perplejidades y paradojas. *Cuadernos de Pedagogía*, 436, 18-21.
- Sutherland, L. eta Markauskaite, L. (2012). Examining the role of authenticity in supporting the development of professional identity: an example from teacher education. *Higher Education*, 64, 747-766. D.O.I.: <http://dx.doi.org/10.1007/s10734-012-9522->
- Taylor, S. eta Bogdan, R.C.(2000). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Paidós.
- Tresserras, A. (2017). *Aportaciones a la formación del profesorado a través del análisis de una experiencia de arte y juego dramático en el primer ciclo de Educación Infantil*. [Tesi doktora]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Vaillant, D. (2010). La identidad docente. La importancia del profesorado. *Revista Novedades Educativas*, 22(234), 1-17.
- Wenger, M.A., Jones, F.N. eta Jones, M.H. (1962). Emotional Behavior. In D.K. Candland (Ed.). *Emotion: Bodily change*. Van Nostrand

7. ERANSKINAK

1. Eranskina: Fokus-taldearen garapen-gidoia

Aurreikusitako denbora: ordu eta erdi

- Taldeko moderatzailearen eta egiten ari den proiektuaren aurkezpen laburra.
- Grabatzeko baimena eskatzea eta grabazioaren helburua informazioa biltzea baino ez dela azaltzea.
- Argitzea parte-hartzaileen konfidentziasuna eta anonimotasuna errespetatuko direla.
- Argitu behar da ez dagoela erantzun okerrik edo zuzenik; parte hartzea eta esperientziak partekatzea da kontua.
- Eskerrak eman parte-hartzaileei proiektuan parte hartzeagatik.

GALDEREN GIDOIA

KATEGORIA	GALDERA
Hezkuntza-sisteman duten parte-hartzea	Parte-hartzaileen aurkezpen labur bat egingo da honako galdera hauen inguruan: zer hezkuntza-eremutan parte hartzen duzu gaur egun? Zeinetan izan duzu parte hartzeko aukera? Zer prestakuntza jaso duzu irakasle gisa? Zer egin nahi duzu etorkizunean?
Hezkuntza emozionala/konpetentzia emozionalen inguruko ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntza Emozionala entzuten duzuean, zein dira burura datozkizuen lau hitzak eta zergatik • Emozionalki konpetente behin baino gehiagotan entzun dudan zerbait da, baina askotan ez dut ulertzen honen atzean dagoena. Zuen ustez, zerk nolako kontepentziatiza behar ditu irakasle batek? Inoiz entzun duzu haien berri? Uste duzu gaitasun emozional horietakoren bat duzula oraintxe bertan? • Zure ustez, aipatu dituzuen konpetentzietatik zein da

	<p>garrantzitsuen irakasleak ikasgelan duen funtzioa kontuan hartuta?</p> <ul style="list-style-type: none"> • Honen harira esaten da gaur egungo irakasleek ez direla konpetenteak emozionalki eta lanketa gehiago egin behar dela. Zure esperientzia pertsonalean oinarrituta, uste duzu hori egia dela? Bai ez zergatik • Zure burua prest ikusten duzu ikasgela batean hezkuntza emozionala lantzeko? Inoiz egin duzu? Nolakoa izan zen emaitza? • Eta zuen ustez zer behar dute irakasleek emozionalki konpetenteago sentitzeko? norengandik etorri behar da hori?
<p>Hezkuntza emozionala/konpetentzia emozionalen inguruko trebakuntza/formazioa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasle gisa egin duzun bide akademikoan, jaso al duzu zure emozioei buruzko prestakuntza emozionala (zure emozioak identifikatzeko baliabideak, emozio negatiboak kudeatzeko gaitasuna.... ? Eta irakasle gisa? • Zure hasierako eta etengabeko formakuntzan zehar zure emozioak baloratu eta landu direla sentitzen duzu? Formakuntza gehiago behar duzu?

	<ul style="list-style-type: none"> ● Pedagogia-berrikuntzako mugimenduren bat ezagutzen duzu hezkuntza emozionala jorratzeko baliabide gisa? ● Hezkuntza-erakundeek ongizate emozionalarekin lotuta egiten dituzten jardueri (tailerra, ikastaroa, konferentzia) buruzko informaziorik eta irisgarritasunik eskaini al zaizu?
<p>Hezkuntza emozionala/konpetentzia emozionala lantzeko/praktikara eramateko aukerak eta esperientziak</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Zure burua prest ikusten duzu ikasgela batean hezkuntza emozionala lantzeko? Inoiz egin duzu? Nolakoa izan zen emaitza? ● Lehen aipatutako konpetentzia emozionala bat landu ahal izango bazenu, zure ustez, zein da garrantzitsuena irakasleak ikasgelan duen funtzioa kontuan hartuta?
<p>Ongizate emozionala sustatzeko aukerak eta mugak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> ● Zergatik sentitzen dute irakasleek beren alderik emozionalena gelan adierazteko beldurra? eta zergatik sentitzen dira kalteberak hori egitean? ● Uste duzu gure emozio pertsonalak eta gelan egiten dugun lan profesionala bereizi behar direla? Kapaza zara hori egiteko? ● Uste duzu hezkuntza emozionala norberak eduki gabe irakats daitekela? Nola irakatsi?

	<ul style="list-style-type: none"> • Zertan eragin dezake ikasgelan kontzientziarik eta gaitasun emozionalik gabeko irakasle batek?
<p>Hobekuntza proposamenak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hemen hitz egin den guztiarekin, zer proposamen edo gomendio egin daitezke? Zuen ustez, nola hobetu daiteke irakasleen prestakuntza hezkuntza emozionalean? Zer aldaketa egin beharko lirateke? • Prebentzio edo teknika erabili behar dira irakasleek/ikasleek eskola ingurunean ongizate emozionala areagotzeko, baina nola? Bakarkako edo taldeko lana izan behar du?

2. Eranskina: Talde fokalaren transkribapena

MODERATZAILEA: Ba listo. Arratsalde on guztioi. Eskerrik asko etortzeagatik bilera honetara. Bueno, aurkeztuko naiz pixkatxo bat. Maialen Cano naiz, 21 urteko neska bat, eta hori Haur Hezkuntzan nago oraintxe bertan, 4. mailan. Eta aurten, ba, nire GRAL-a egiten ari naiz, baita, ba, nolabait bilera txiki honen helburua izango litzateke irakasleen prestakuntzan Hezkuntza Emozionalari buruz dituzuen ikuspuntuak, ezagutzak eta ideiak, inkusio emozioak, ezagutzea eta partekatzea da. Horretarako, gaiari buruzko hainbat galdera egingo ditut. Nik ez dut parte hartuko, elkarrizketaren bideratu baizik. Hori esatea ez daudela txandarik, nahi duzun moduan hitz egin ahal duzuela eta eztabaidatzerik dagoela. Eta, bueno, ezer baino lehen gustatuko litzaidake aurkepen txiki batzuk egitea. Nik ezagutzen dizuet, baina zuen buruari buruzko aurkezpen labur-txiki-txiki bat egitea. Ba nola deitzen zara, zenbat urte dituzun, zer egiten ari zaren hezkuntza sisteman oraintxe bertan, zenbat urte daramazu hezkuntza sisteman...

PARTE-HARTZAILE 1 (57 URTE) : Hasiko naiz ni. Bueno, ni Izaskun Azpillaga naiz eta Ondarroan bizi naiz. Eta, bueno, ni hasi nintzen pixka bat berandu mundu honetan. Ze nik beste lan batzuk-eta egin nituen, eta, beno, gustura. Eta bat-batean, ba, ama izan nintzen eta hasi nintzen. Asko interesatzen zitzaidan, batek bestea eramaten ninduen beti toki batetik bestera, eta, bueno, ba psikomotrisizta naiz. Aucouturier-en eta Pikler-en munduan nago oso sartuta. Niretzako lagungarria oso da. Partzuergoan egon naiz, txikiekin lanea eta orain nago eskola publikoan lanean, eta momentu honetan 3 urteko umeekin nago lanean, eta egunero borrokatzen. Oso pozik. Eta 57 urte ditut.

MODERATZAILEA: Mila esker Izaskun.

PARTE-HARTZAILE 2 (26 URTE): Ba ni Ane Azkue naiz eta Orion bizi naiz. Ba Haur Hezkuntzako laugarren mailan nago. Maialenen gelan. Maialen bezala orain praktiketako lanak egiten ari naiz eta TFGekin nago ere. Orain 3 urteko umeekin nago eta oso pozik.

MODERATZAILEA: Ba mila esker Ane. Norbait gehiago?

PARTE-HARTZAILE 3 (20 URTE): Ba ni Lucia deitzen naiz, 20 urte ditut eta oraintxe bertan lehenengo mailan haur-hezkuntza egiten hemen Gasteizen ere bai. Aurretik egin dut haur-hezkuntzako goi-zikloa ere bai, eta asko gustatu zait. Hezkuntza ez-formalean nago egiten monitoretzako kurtsoa, eta horrela.

PARTE-HARTZAILE 4 (29 URTE): Jarraituko dut nik. Ni Asier naiz, 29 urte ditu, eta, bueno, Haur Hezkuntza ikasi nuen. Gero master bat egin nuen psiko-didaktikan, aspalditik helburua neukalako,

EHU-ko irakasle izateko. Orduan, Masterra egin behar nuen, eta orain nago tesia egiten, tesi munduan sartuta gehienbat. Egon naiz hezkuntza ez formalean, aisialdian. Nahiko nuke eskoletatik ere pasatzea, baina bide hau hartu dut. Baina dakit hortik bueltatuko naizen, eta orain irakasten dut musika duela 6 urte. Nire aisialdian formatu naiz horretan, eta orain aukera hori eskaini didate eta super gustura nago hemengo.

PARTE-HARTZAILE 2 (26 URTE): : Bai, ni ere bai oso gustura nago.

